

Prostituzioa, beste pandemia bat



Alarma-egoeran zehar, CARITAS GIPUZKOAK prostituziotik eratorritako egoerei lotutako zenbait dei jaso zituen. Jon Sardon, CARITAS GIPUZKOAKo gizarte-langilea, laguntza eskaera ezberdinei telefonoz eta aurrez aurre erantzun zienetariko bat izan zen.

Noiz izan ziren prostituzioan aritzen ziren pertsonen deiak?

Konfinamendu osoan zehar lau edo bost dei jaso ziren, prostituzioan aritzen ziren gizon zein emakumeek eginak. Prekarietate-egoeran zeuden pertsonak ziren; ez zuten diru-sarrera ekonomikorik, zituzten aurrezki gutxiak gastatu zituzten jada... Kezkatuta zeuden bizi zuten egoera korapilatsuarekin: ezin zituzten bezeroak jaso...

Laguntza-eskaerei dagokienez, zein izan zen CARITAS GIPUZKOAREN erantzuna?

Ezberdinak izan ziren. CARITAS GIPUZKOAK, egoera bakoitza aztertu ondoren eskaerei erantzuten die. Deietariko bat, herrialde ezberdinetako, 24 eta 35 urte arteko hamaika emakume eta gizon bizi ziren etxe batetik egin zen; bertan bizi, eta prostituzioan ere bertan aritzen ziren. Ondoren, hainbat erakunderekin, administrazioarekin... harremanetan jarri ginen aukera edo irtenbiderik aproposenak baloratzeko. CARITAS GIPUZKOATik, Miriam ezagutzera eman zitzaizen, emakumeari arreta integrala egiten zion programa, euren egoera pertsonalaren jarraipen eta akonpainamendu handiagoa egiteko.

Eta pisuetan bizi ziren pertsonekin zer egin zen?

Egoera luzatuz joan zenez, ostatu eta elikadura alorrak bultzatu genituen, kalean amaitu zezaten aukera ere ikusten baikenuen.

Donostialdetik jaso al ziren deiak?

Bai, baina probintziako CARITAS GIPUZKOAKo zentro ezberdinetan jasotako deien berri ere izan dugu. Lurraldean zehar ere laguntza eskaerak jaso ziren: Goierri...

Gaur gaurkoz, lehenengo laguntza-eskaera hura egin zutenekin ba al duzue harremanik?

Konfinamendua amaitu ondoren, pertsona batzuekin egon gara harremanetan, eta beste batzuekin, berriz, zaila izan da kontaktuan jartzea. CARITAS GIPUZKOAK, bere ateak zabal-zabalik ditu, eta hazi bat jarri du prostituzioarekin zerikusia duten etorkizuneko egoerei aurre egiteko.

Prostituzioa inguratzen duen iluntasunean, argi-izpiak ere egon badaude. CARITAS GIPUZKOAREkin harremanetan jarri zen pertsonetako batek, duela gutxi lana aurkitu du, eta mundu horretatik irten ahal izan du. CARITAS GIPUZKOATik jaso duen laguntzarengatik eskertua dago.

Esan beharra dago, bestalde, prostituzioa oso presente dagoela gure gizartean, kontsumo sozial handia du, nahiz eta ezkutatuta egon. Jarduera horretan diharduten pertsonen bizi-baldintza negargarriak dira.